

BALIABIDEAK

Gure enpresaren kasuan, furgoneta eta autokarabanak alokatzeko enpresa izanda, hurrengo baliabide fisiko, intelektual, giza baliabide eta finantza-baliabideak ditugu:

BALIABIDE FISIKOAK

Furgonetak gordetzeko lokal bat izango dugu, garaje baten eta bulego baten antzera erabiliko dena. Bertan gure ibilgailuak gordeko ditugu, eta bulegoa bezeroen zalantzak argitzeko eta informazioa emateko gune gisa erabiliko dugu. Beste alde batetik ordenagailu eta mugikor bat izango dugu. Horien bidez bezeroekin kontaktuan jartzea eta webgunearen bidez lan egitea lortuko dugu. Webgunea erreserbak egiteko erabiliko da. Azkenik, furgonetak eta autokarabanak izango ditugu.

BALIABIDE INTELEKTUALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Alde batetik, informatika eta webguneak sortzeko trebetasuna dugu, ordenagailua eta Interneten bidez egingo dugulako lan gehienbat. Abilezia horiekin web-orri bat sortuko dugu eta bertatik gure zerbitzua eskainiko dugu. Horretaz aparte, salmentarako eta antolaketarako abilezia izan behar dugu, gure zerbitzua ahalik eta bezero gehienarengana iristeko. Hori guk egingo dugun publizitatearen bidez lortuko dugu.

FINANTZA-BALIABIDEAK

Dirua aurreztua eta maileguak izango dira gure finantza baliabide nagusiak.

HASIERAKO INBERTSIOA ETA FINANTZAKETA

INBERTSIOA		FINANTZAKETA	
Aktiboa		Fondo propioak eta Pasiboa	
Ibilgailuak	124760	Fondo propioak	
Ordenagailua	695	Kapital soziala	25960
Mahai bat	218	Kanpoko finantzaketa	
Aulki bat	169	Maileguak	100000
Inprimagailua	118		
Inbertsioa denera	125960	Finantzaketa denera	125960